**Esp. kodea:** 2017SAPL0003

**Gaia:** PLENOA 2017/04/04
**Hasiera eguna:** 2017/03/27

**AKORDIOEN LABURPENA**

Udal Plenoak, 2017ko apirilaren 4a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

Udal Plenoak, aho batez, 2017ko martxoaren 7a egindako bileraren akta onartu du.

**2.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA UDALEKO 2016KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA.**

Udalbatzarrak pasatako informazioaren berri hartu du.

**3.-UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA ITURBIDE EGOITZAKO 2016KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA.**

Udalbatzarrak pasatako informazioaren berri hartu du

**4.-2016 URTEKO EKITALDIKO LIKIDAZIOAREN SOBERAKINAREKIN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA.**

Aldeko 11 boto (EAJ eta PSE) eta kontrako 9 (EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI) botorekin onartu da proposatutako kreditu aldaketa, honako zenbaki laburpenari dagokiona:

A- GASTU GEHIKUNTZA

| | |
|---|---|
| V. Kap. – Kreditu Globala | 90.000,00euro |
| VI. Kap. – Inbertsioak | 4.611.000,00 euro |
| GASTU GEHIKUNTZAK GUZTIRA | 4.701.000,00 euro |

B- FINANTZAKETA –

B.1 – 2016KO DIRUZAINTZAKO GERAKINA 4.701.000,00 euro

**5.-2017KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA**

Osoko bilkurak aho batez erabaki du puntualki aldatzea Lanpostuen Zerrenda, ondoko

xehetasunen arabera:

- ‘BAZeko Informazio eta Izapidetze Agentea’ (139 kodea) lanpostua, sailkapen-talde bi hauetako funtzionarioei zuzenduko zaie: (C2/C1)
- ‘BAZeko Informazio eta Izapidetze Agentea’ lanpostuaren 139-2 kodea duen dotazioa diskapazitatea (%33ko minusbalioa) duten pertsonei erreserbatuko zaie.
- ‘Hodi-iturgin ofiziala’ (74 kodea) lanpostua hornitzeko gutxieneko titulazio akademikoa hauxe izango da: DBH graduatua, LH 1, edo baliokidea.

**6.-IRABAZI UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, HEZKUNTZA KOMUNITATEAREKIN ADOSTUTAKO HEZKUNTZA ITUNA LORTZEKO.**

Aldeko 5 botorekin (PSE eta BALEIKE) kontrako 8 (EAJ) eta 7 abstentziorekin (EH BILDU) ez da onartu aurkeztutako mozioa.

**7.-IRABAZI UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ESTIBAKO SEKTOREARI ELKARTASUNA ADIERAZTEKO.**

Aldeko bi boto (BALEIKE) kontrako 8 (EAJ) eta 10 abstentziorekin (PSE eta EH BILDU) ez da onartu aurkeztutako mozioa.

**8.-IRABAZI ETA BALEIKE UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, HIRUGARREN ERREPUBLIKAREN ALDEKO UDALERRIEN SARERA ATXIKITZEKO.**

Aldeko bi boto (BALEIKE) eta kontrako 18 botorekin (gainontzeko guztiak) ez da onartua izan aurkeztutako mozioa.

**9.- EAJ ETA PSE UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA PINTADEN INGURUAN**

Aldeko 11 (EAJ eta PSE) kontrako 7 (EH BILDU) eta 2 abstentzioarekin (BALEIKE) onartua geratu da aurkeztutako mozioa.

Arrasaten, 2017ko apirilaren 4an

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta